




elkarberri 70

TicketBAI Programa

Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco



Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

2021eko apirila - ekaina / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

ZURE SEGURTASUNA, GURE KONPROMISUA



Lasai egon ahal zara:
Fisioterapia Zentro
batean sartzen zara

HEMEN: COFpVID pLANa



Roberto
Romero
EFEO-ko
idazkaria

editoriala

Ezjakintasunaren etika

Ezjakintasunaren etika; horixe da lehenengoz termino hori topatzean zera pentsarazten digun terminoetako bat: ze pena ez zaidala niri okurritu!

Azken asteetan, kontzeptu hori nire burura itzuli da, zalantzarik gabe egungo Fisioterapiak bizi dituen gatazka irrazionalengatik. Guztiz aurkakoak diren bi proposamenen arteko norgehiagoka, paradigma bera eta haren esparru epistemologikoak identifikatu eta sortzeko. Zeharo desberdinak, aurrez aurre jarritako bi mutur, bi leinu, bi ikuspegi oso desberdin mezu komun bakarrarekin: kritikak onartzen dira, baldin eta nire printzipioekin kontraesanean ez badaude.

Alde batean, Fisioterapia Zientzia Zehatz baten irudi eta antzera ulertzen duen kolektiboa. $p < 0,05$ -ren eta garrantzi klinikoaren talibanak; paperaren esklaboak; "Fisioterapia Arte eta Zientzia gisa..." kontsignarekin kritikoak; ebidentzia zientifiko adeigabepeko garapen baztertzailerik baten bideratzaileak; "esperientzia eta begi klinikoaren" etsaiak. Ezagutzaren ilusioa intuizio-isuritzat.

Beste muturrean, dinosauro zaharrak eta erreferentziazko figurak, interes ezkutuen feudoen eta gotorleku harresituen defendatzaileak, argumentutzat dogma historikoa besterik ez dutenak eta defentsa epistemologikoa egiten duenak aurreiritzi arruntak, kritikarik gabe onartutako susmoak oinarri hartuta, eta baliozkotze-esponente goren bat dutenak, alegia, beren barruti endogamikoan eta paziente leialen komunitatean bertan sortzen duen inpaktu emozionala.

Lehenengoez diziplinaren garapen bakar eksklusibo eta baztertzailerik baten bideratzen gaituzte, ebidentzia zientifikoaren esparru hauskaitzaren babesean. Printzipio humanistikorik gabeko garapena, osasunaren eta gaixotasunaren eredu erredukzionista baten eraman gaituena. Ezjakintasun eta intolerantziarekiko erraietako ukatzea nahikoa argumentutzat hartzen da fisioterapia defentsibo bati eta gehiegizko interbentzionismoaren iatrogeniari eusteko.

Bigarrenak nahasi eta desorientatu egiten dira beren autokonplazentzian. Ezagutzaren aurrerapena

oztopatzen dute, ahots disonantea uxatuz eta beren jatorrizko printzipioak gezurtatzeko aukera ukatuz. Oinarri hauskaitzak dira, hormigoizko zutabe indartsu gisa onartzen dituztenak, gupidarik gabe ahultzen dituen aluminosi-prozesuaren berri ez jakinik.

Batzuek beren ziurtasun-ilusioaren berri ez dute sarri. Nartzisismoa irudikatzen dute Platonen haitzulo erabilian eta argiaz gozatzen ari direla uste dute, oraindik iluntasun goibelean murgilduta daudela uste dutenak harrokeria errukarriz behatuz. Proposamen teoriko arriskatua da ezagutzaren aurrerapena azaltzeko: akaso gaurko zeru garbia ez ote da haitzulo bihurtuko bihar?

Besteek, dinosauro zahar eta erreferente gisa, haserre daudela erakusten dute horrelako ignominien aurrean. Zer uste dute! Nik egindako ekarpen guztiekin! Iparrorratzagatik, interbentzioaren emaitzak -nori axola dio plazeboa zen ala ez! - eta, nire banderagatik, niri funtzionatzen dit. Lidergo fosilduak eta akolito leialak, geroz eta like gehiago dituztenak, begiak estalita izanik.

Fisioterapia aktiboa, aldaketa-palanka zahartzaroan

2021 09 -16

PROGRAMA

"Aquatic physiotherapy for older adults with arthritis"
Sophie Heywood

"Cognición, funcionalidad y ejercicio en trastornos neurodegenerativos"
Ivan José Fuentes

"Ejercicio terapéutico y salud mental"
Asier Arrizabalaga

"Fisioterapia respiratoria en el proceso de envejecimiento"
Maidier Azkuenaga

"Valoración en Fisioterapia oncogeriátrica"
Antonio Cuesta

"Envejecimiento activo durante el proceso oncológico"
Cristina Roldán

"Fisioterapia como herramienta de prevención y abordaje de la incontinencia y disfunción sexuales en el adulto mayor"
Sara Esparza

"Valoración multimodal fisioterápica y nuevas tecnologías en personas mayores"
Manuel Trinidad

"Therapeutic exercise in frailty and sarcopenia"
David Beckwée

"Valoración de la fragilidad en geriatría: aplicación en el contexto clínico"
Adrian Escriche

"Diferencias cognitivas y sensorio-motores entre el caminar y los bailes tradicionales vascos en mujeres mayores"

Maialen Araolaza

"Consideraciones desde la Fisioterapia sobre el deporte recreacional y el running en personas mayores"
Alvaro Pareja

Lehenengoak, harroputz, ziurgabetasuna ukatuko dute eta diagnostikoaren ziurtasuna (faltua) bilatuko dute akitu arte, beren ezjakintasuna aitortu gabe, eta zehatza ez den zientzia baten mugak onartu gabe. Bigarrenak, eroso, ezagutza betiereko baten aduanazain izateko zortedun sentituta eta beren diskurtsoaren agintaritzak (faltuak) beren buruei atsegin emanda, bilatu ere ez dute egingo.

Ezagutzeko eta ulertzeko bi proposamen desberdin, horien azpian bidegabekeria epistemiko, irrazional eta errespetugabe bera egonik. Voltaire baztertua, litekeena da biek ahaztea zalantza oso deserosoa izan arren, ziurtasuna egoera irrigarria dela.

Hori gutxi balitz bezala, inor ez dadila engainatu: ezagutza ez da gainditzen denboran modu lineal eta goranzkoan. Ez da aurrera egiten leuntasunez, ezta pixkanaka ere zentzu bakar batean. Oso erraza da ezagutzaren ibilbidea mendiarekin parekatuta:

bidexka bihurriak, harri eta oztopodunak, goranzko eta beherazko maldekin, galtzeekin eta atzera egin behar izatearekin. Zientziaren aurrerapenak ukondokadaz irekitzen du bidea, errespeturik gabe. Indarkeriaz eta trakestasunez egiten du, mando bat portzelana-denda batean egongo balitz bezala; ustez sendoak ziren zutabeak suntsitzen ditu, ezarritakoa gezurtatzen du, egia zuela uste zuenak lotsarazten du. Fisioterapiaren ezagutza gaur behin-behinekoa dela eta datu probabilitistikoaren bilduma hutsa dela onartzeak indartu egingo gintuzke diziplina zientifiko gisa. Printzipio hauskaizetan finkatzeko ahaleginak ahuldu egiten gaitu Zientzia gisa, etika asistentzialetik desbideratzen gaitu eta giza balioa kentzen digu. Gezurtatzea ez da umiliatzea.

Madarikatua Planck-en printzipioa, zera dioena: "egia zientifiko berri batek ez du arrakastarik aurkariak konbentzitu eta argia ikusaraztegitik, aurkariak hil eta belaunaldi berri

bat hazteagatik bazik". Ez dezagun gure jarrerarekin bermatu gogoeta egoki hori.

Gonbidapen ozena egiten dut alternatibak bilatzera ezjakintasunaren etikan. Sokrates eta Popper aurkitzea besarkada umilean, autokritika onartuz eredu eta jarrera profesional gisa, baita bizitzaren alderdian ere; gure ezagutzaren mugak onartuz eta gure erabakiek zentzuzko ziurgabetasunarekin bizi behar izatea aitortuz. Bazter dezagun zuri-beltza eta murgil gaitezen grisen gama eder batean. Umiltasun kognitiboa ezagutzeko ezinbesteko betebeharrak gisa.

Ez dago ziurgabetasuna baino elementu zientifikoagorik, gure ikuspegia edozein delarik ere.

aurkibidea

3

editoriala

24

aholkularitza
juridikoa

6

berriak

26

iragarkiak

20

elkarriketa

30

elkargokide

Lehendakaritza eta Zuzendaritza

Iban Arrien Celaya

Koordinazioa:

Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo

Gauzatzea eta Maketazioa

J&J Creativos

Argazkigintza

ORO

Argitalpena

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Hiruhilabeteko argitalpena

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.



**Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco**



**Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala**

2021eko apirilaren 10eko

OHIKO

ELKARGO-BATZARRA

ASAMBLEA GENERAL

ORDINARIA

10 de abril de 2021

Batzar Nagusia

Aho batez onetsi dira Elkargoaren 2020ko kontuak

Joan den apirilaren 10ean egin zen 2021eko lehen batzarra. Pandemiaren egoera zela eta, online egin zen.	zuen, eta gure diziplinaren arlo guztietan mantentzen jarraitu den lan profesionala aitortu zuen, eta, bereziki, lehen lerroan lan egiten duten fisioterapeuten kolektiboari, COVID-19aren bidezko infekzioaren bigarren mailako arazoak lantzeko, leheneratzeko eta prebenitzeko lanean eta lankidetzan.	elkarlanerako behin eta berriz eta etengabe garatutako formuletan, borondatezkoetan, interes orokorreko dokumentazioaren diseinuan eta Elkargoak gaur egun ere jasotzen dituen ehunka maitasun-, eskertze- eta babes-adierazpenetan.
Hasi aurretik eta batzarraren formatu bereziagatik, parte-hartzaileei beharrezko argibideak eman zitzaizkien.	Era berean, nabarmendu egin zituen esparru pribatuari lotutako kolektibo osoak identifikatutako zailtasunak eta erakutsitako heldutasun-maila, zeina argi eta garbi adierazi den	Halaber, bere aitortza eta esker ona adierazi zien publikoki Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kide guztiek krisi epidemiologikoko azken hilabete hauetan egindako lan eta eginkizunengatik.
Argibideak eman ostean, aurreko batzarreko akta onetsi zuten.		
Izapide horren ondoren, EFEOko presidente Iban Arrienek lanbidearen egoeraren laburpen xehatua azaldu		

Presidenteak hitz egin ondoren, Roberto Romerok, Gobernu Batzarreko idazkariak, Elkargoaren Administrazioak egindako jardueren berri eman zuen. Aitortza egin zien krisi-garai honetan egindako lanagatik; izan ere, garai zaila izan da, eta zerbitzuak eta konpromisoak indartzera behartu gaitu azken urtean.

Gainera, eta prozesuan identifikatutako gorabehera ugariri eta jasotzen joan garen kezka askori erantzunez, Robertok txertaketa-programarekin lotutako kudeaketen zerrenda bat partekatu zuen, Zuzendaritza Teknikoak koordinatu/garatu dituenak.

Azkenik, Robertok Gobernu Batzarraren sentipenaren berri eman zuen. Hain zuzen, ulertzen dute txertatu nahi duten eta oraindik horren zain dauden kolektibotik jasotzen ari diren frustrazioa eta kezka.

Halaber, aipatu zuen estrategia berriak gartuko direla laster, EFEOtik proiektatutakoak, eta beste elkargo batzuekin batera, ahaleginak batzea eta antzeko interesak elkartzea xede dutenak, gainerako euskal kolektibo sanitarioei ere eragiten dien atentziorik ezaren arazoa berehala konpontzeko eskatzeko.

Roberto lankidearen ostean, Edorta Ansoleagak azaldu zituen Aholkularitza Juridikoa eta Intrusismoaren arloko jarduera garrantzitsuenak.

Jarraian, Andrea Sclarik, Gobernu Batzordeko I. kideak, 2020an egindako Komunikazioko Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, eta alderdi hauek nabarmendu zituen:

- Elkarberri aldizkariaren edizioa berraktibatzea
- 2020ko sarien oroitzapenezko bideoa
- Fisioterapiaren Mundu Eguneko jarduerak bertan behera uztea ezinbestean.

Ondoren June Ruizek, EFEOren presidenteordeak, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordearen azalpena egin zuen, eta 2020an egindako ikastaroak laburbildu zituen, baita 2021ean garatzeko prestakuntza-proiektuak ere.

Online formatuari lehentasuna emateko beharra azpimarratu zuen, aurrez aurreko proposamenen edo proposamen mistoen aurrean, izandako esperientzia kontuan izanda eta erantzukizun goreneko printzipioa lehenetsiz.

Prestakuntza Batzordea bukatu ondoren, Andrea Sclarik hartu zuen hitza berriro, Mendekotasuna, Desgaitasuna eta Gizarte Zerbitzuak eta Kirola, Kirol Egokitua eta Inklusiboa Batzordeetako jarduerarik nabarmenenak aurkezteko.

Ondoren, EFEOko diruzain Edurne Anduezak 2020ko urteko kontuen balantzearen laburpen xehatua egin zuen.

Hori horrela, urteko balantzeak amaierako emaitza bat iraultzen du, zeinetan azpimarratzekoak diren ezusteko aldaketak eta partida ugariren ezinbesteko birbideratzeak; desbideratze moderatuak sortu dira hasieran proiektatutako aurrekontutik, aurkitutako aparteko beharrei erantzuteko eta guztiok ezagutzen ditugun baldintza oso bereziei aurre egin behar izateko. Amaierako balantzeak erakusten du partida batzuk ezin direla bete lotutako gasturik ez zegoelako, eta beste batzuen hasierako aurreikuspena -COVID-19 agertu aurrekoa- oso baxua zela azkenean behar izandakoaren aldean.

Azkenik, kontuak aho batez onetsi ziren.

Une horretan, Iban Arrienek zenbait gogoeta egin zituen, eta Fisioterapeuten Elkargoaren Kontseilu Nagusiaren hainbat ekintza, estrategia eta proiektu azaldu zituen, oro har.

Honako hauek dira nabarmendutako elementuetako batzuk : pandemiarekin lotutako alderdien kudeaketa garrantzitsua estatuaren esparruan; lanbidearen Kode Deontologiko bakar eta adostua aurrera ateratzeko proiektua; Estatutu Orokor berrien diseinua eta garapena; eta lanbidearen etorkizunerako funtsezko zat jotzen ditugun alderdiak jorratzeko kudeaketa eta kontaktu politikoak, hala nola espezialitateen garapena, jardueraren esparruetan (lehen mailako arreta, arreta goiztiarra, hezkuntza-eremua...) ekintza zuzenak garatzea.

Parte-hartze horren ostean, eskaera eta galderen atalari heldu zioten. Zenbait kontsulta egin ziren, eta EFEOko ordezkariak hitzeman zuten kontsultatuko zutela eta, hala badagokio, konpontzen saiatuko zirela.

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie ohikoa ez bezalakoa izan zen batzarrerara joan ziren guztiei. Eta, bide batez, lerro hauek baliatu nahi ditugu elkargoaren proposamenetan modu aktiboagoan parte hartzera animatzeko.

**Komunikazio
Batzordea**



TicketBAI Programa

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila abian ari da jartzen **fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresna bat (TicketBAI)**, zerga-iruzurra ekiditeko helburuarekin. Zergadunei dago zuzenduta, **bai enpresak eta bai autonomoak**, bitarteko edo amaierako bezeroen eskutik ondasun edo zerbitzuen salmenta-jardueren ordainketa jasotzen dutenak. Proiektu berriak betebeharrak legal eta teknikoak ezartzen ditu "fakturazio-softwaretan", eta, horien bidez, Euskadiko ogasunek jarduera-sektore guztietako diru-sarrerak kontrolatu ahal dituzte.

Laburbilduz, TicketBAI (aurrerantzean TBAI) hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko proiektua da, eta haren xedea da betebeharrak legal eta tekniko batzuk ezartzea, indarrean sartzen denetik pertsona fisiko eta juridiko guztiek, egoitza Euskadin dutenak, jarduera ekonomiko bat egitean argitaratzen diren baldintza teknikoak betetzen dituen fakturazio-software bat erabiltzeko.

Sistema berriak aukera emango die foru-ogasunei zergadunen jarduera ekonomikoetako diru-sarrerak kontrolatzeko, eta, bereziki, **amaierako kontsumitzaileei ondasun edo zerbitzu-prestazioak emateko sektoreetako jardueretan**. Horiek neurri handi batean eskudirutan kobratzen dira. Halaber, informazio hori erabiliko da zergadunei euren zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko.

Nahiz eta TBAI sistemaren oinarriak berdinak diren hiru foru-ogasunetan, foru-erakunde bakoitzaren arau-xedapen propioen bitartez arautzen

da, eta baditu lurraldearen arabera bereizitasunak ere:



<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai>



<https://www.batuz.eus/eu/hasiera>



<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/ticketbai>



<https://www.izenpe.eus/iee/eu/certificados-ticketbai.shtml>

Nori eragiten dio kontrol-sistemak?

TBAI sistemak jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakunde guztiei eragiten die, baldin eta euskal foru ogasunek PFEZean edo sozietateen gaineko zergan (SZ) duten araugintza eskumenaren mende badaude, bat etorritik maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean jasotakoarekin.

Zertan datza fakturazio- eta kobrantza-sistema?

Funtsean, TBAI fakturak kateatzen ditu, eta elektronikoki ere sinatzen dira. Horrek eragotzi egiten du fakturak manipulatzeko edo ezabatzea. Horrek ziurtatu egingo du erregistro informatikoen benetakotasuna, osotasuna, trazabilitatea eta bortxaezintasuna; azken batean, faktura jaulki ondoren ezin izango dira manipulatu edo ezabatu gailu desberdinen bidez, hala nola saltokiko terminalak (ST), ordenagailu pertsonalak, vending makina aurreratuak, balantza aurreratuak, tabletak edo telefono mugikorak. Erregistroak kasuan kasuko foru-ogasunei bidali beharko zaizkie, horietako bakoitzak ezarritako moduan eta epean.

Gainera, programak faktura sortuko du beharrezko datu guztiekin, eta bi eremu berri izango ditu, fakturaren datuak beste formatu batean irudikatzea besterik ez dakartenak, hau da, TBAI identifikazio-kode bat eta QR kode bat.

Doakoa izango al da fakturazio-softwarea?

Printzipioz, ordaintzeko aukerak badaude ere, hiru lurraldeak doako elementu teknikoak eta "fakturazio-softwarea" garatzen ari dira. Horiek aukera emango digute fakturazioa eta kobrantza erregistratu, inplementatu eta kontrolatzeko, proiektuaren kontrol-irizpideekin bat etorritik.

Noiz jarriko da indarrean?

Hasiera batean, aurreikusitako data 2020ko urria zen, ondoren, pixkanaka garatzeko; hala ere, pandemiaren bilakaeraren ondorioz, abian jartzeko epea luzatu egin zen, eta euskal lurralde osoan ezartzeko data 2022ko urtarrilaren 1era atzeratu behar izan zen. 2021ean, baimendu egiten da borondatezko ezartzea, eta, gainera, onura fiskal eta dirulaguntza batzuk eskura daitezke.

Non lor dezaket informazio gehiago?

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuna Sailaren webgunean aurkituko duzu informazio gehiago, esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/ticketbai-programa/web01-a2ogatic/eu/>

Horrez gain, EFEO harremanetan jarri da hiru foru-ogasunekin eta hainbat erakunde pribaturekin, fisioterapeuten kolektiboak enprekin edo LAAB araubidean atxikitakoei ezartzeko beharrezko informazioa erosteko prozesua errazteko. Topaketa horiei esker, informazio-tailerak iragarri eta proiektatu ditu foru-ogasunetako teknikarien taldeak, eta sarrera askea izango da; beharrezko informazio guztia bilduko da eta zalantzak eta kontsultak argitutako dira zuzenean.

Tailerren emaitzaren eta identifikatutako beharren arabera, lehentasunezko lankidetzak-akordioak

adosteko beharrezko bilaketa eta kudeaketak egingo lirateke, sektoreko enpresa pribatuekin baldintza mesedegarriak lortzeko programarekin lotutako produktuetan.

GIPUZKOAKO ENPRESAK ETA LANGILE AUTONOMOAK

Informazio-tailerren eguna: **2021/06/30 (asteazkena). 16:00etatik 17:30era. Online (ZOOM plataformaren bidez).**

Hizlariak:

- M^a DEL CORO PEREIRO and. Gipuzkoako Foru Ogasuneko Estrategia Teknologikoko zuzendariorde nagusia.
- JAVIER IRASTORZA jn. Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zerga Arloko Eraldaketa Teknologikoko zerbitzuburua (baieztatzeke)

BIZKAIKO ENPRESAK ETA LANGILE AUTONOMOAK

Informazio-tailerren eguna: **2021/07/07 (asteazkena). 16:00etatik 18:00etara. Online (ZOOM plataformaren bidez).**

Hizlariak:

- Iñigo Eguia Ossorio jn. Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaiko Foru Ogasuneko Iruzuraren aurkako Borrokaren Arriskuen Analisirako eta Koordinaziorako zerbitzuburua.
- Antonio Pérez Delgado jn. Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapen zuzendariordea.
- Raquel Garay Ruiz de Azua and. Izenpeko Proiektuak Arloko arduraduna.

ARABAKO ENPRESAK ETA LANGILE AUTONOMOAK

Arabako Foru Ogasuneko proiektuko arduradunek jakinarazi digute oraindik lanean ari direla araua foru-lurraldera eramateko,

baina eskertzen dute gure interesa eta erabateko konpromisoa agertu dute gu beren komunikazio-planeari sartzeko, ezartzeko xehetasunak amaitzen dituztenean. Zuei jakinarazteko konpromisoa hartzen dugu.

Proiektua sakondu edo harekin lotutako zalantzak argitu nahi dituzuen EFEOko kide guztiok tailerretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, tailerrak zein lurraldetan egingo diren aintzat hartuta. Aurki emango dizkizuegu ZOOM plataforman sartu eta online tailerretan zuzenean parte hartzeko estekak. Hala ere, jorratuko den gaiaren garrantzia aintzat hartuta, ondoren, hitzaldien grabazioen estekak ere emango dizkizuegu, edukia ahalik eta gehien heda dadin. Foru-ogasunek hartutako konpromisoaren arabera, tailerren ondoren, grabazioak hilabetez egongo dira eskuragarri.

**Komunikazio
Batzordea**



ezker
anitza

Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco



Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza legebiltzarreko taldeko ordezkariekin hitz egin genuen fisioterapiaren inguruan

Joan den apirilaren 8an aukera izan genuen topaketa bat antolatzeke elkargoaren egoitzan Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza legebiltzarreko taldeko ordezkariekin.

Elkarrekin Podemos-EA taldearen aldetik Gustavo Angulo jauna (ordezko bozeramailea), Pablo Laguna jauna (koordinatzailea) eta Julen X jauna bertaratu ziren. EFEOko ordezkari gisa Severino Setien eta Roberto Romero bertaratu ziren.

Topaketa Angulo jaunak eskatu zuen legebiltzarreko taldearen izenean, lehen eskutik ezagutzeko eta sakonago joratzeko guk aste batzuk lehenago Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde guztiei bidali genien dokumentua, **"HITZ EGIN DEZAGUN FISIOTERAPIAZ ARRAZOIMENETIK"** izenburuarekin.

Bilera adeitsua eta produktiboa izan zen, lankidetzaz ingurune batean, eta bi ordu baino gehiagoko iraupena izan zuen. Bileran lanbideari begira interesgarriak izan daitezkeen gaiak partekatu eta joratu ziren.

Hona hemen joraturako puntu garrantzitsuenak, baita argudio batzuk ere:

- Lehenik eta behin **Osakidetza-Osasun Sistema Publikoko plantillaren etengabeko defizita** azpimarratu genuen. "Egoera hori joan den urtean salatu zuten hainbat sindikatuk, eta, elkargoaren ustez, azken bi hamarkadetan Euskadi Osasunaren Mundu Erakundeak adierazitako estandar egokitik aldendu du. Gomendaturako "1 fisioterapeuta /1.000 biztanle" ratioa asko urruntzen da gure eremu publikoko plantillaren analisitik ondorioztaturako 0,1 fisioterapeuta/1.000 biztanle ratioetik (iturria: SATSE. 2019)"
- "Fisioterapeuten kolektiboaren plantillaren defizita **EAEko beste gizarte-, osasun- eta**

hezkuntza-sektore eta -eremu batzuei jakinarazi genien". "Fisioterapeuten plaza berrien eskasia adinekoentzako zerbitzu eta egoitzetan, zentro itunduen handinahirik gabeko arauketa, Euskadiko Hezkuntza Zentroen sareko eskaintza mugatua edo urria, edo arreta goiztiarreko zerbitzuei eta horien prestazioari buruzko azken Dekretutik eratorritako baldintza eztabaidagarriak dira gure hobekuntza- eta aurrerapen-eskaeretakoz batzuk."

- Plantillaren urritasunaren elementu gehigarri gisa azpimarragarria da **"diziplinarekin eta hainbat sektoretako zerbitzuekin lotutako azpiegituren aprobetxamendu** mugatua". Alde horretatik, "fisioterapiako arreta eta haren onurak jasotzeko itxarote-zerrenda luzeek talka egiten dute bete-betean zerbitzuen ordutegi aktiboak luzatzeko proiektzio-faltarekin, ez baitago fisioterapia-sare espezializaturik (pelbiperineologia, bihotz-biriketakoa, neurologia, pediatria...), eta diziplina profesional hori ez delako inoiz arreta goiztiararen sarearen parte izan historikoki (duela gutxi abian jarri diren "proiektu pilotu" txikiez harago).

Adibide bat jartzearren, "identifikatu dugunez, egungo zerbitzu eta instalazioak (zeinak itxita edo langile gutxiagorekin egoten diren) arratsaldeko ordutegietan optimizatuta handitu egingo litzateke egungo gaitasuna, eta **OSAKIDETZAN** fisioterapeuten plantilla nabarmen handitu ahalko litzateke." Kontratazioko inbertsio horrek "aurrezki handiagoa ekarriko du, eta arrazoizko epeetan tratamenduen gabeziatik eratorritako konplikazioak ekidingo lirateke. Gainera, murriztu egingo litzateke zentro pribatu itunduetara bidalitako pazienteen kopurua". Beraz, egokitasun ekonomikoa agerikoa da.

Horrez gain, "egungo osasun-krisiak agerian utzi du, modu lazgarrian,

osasun-sistema publiko indartsu bat eta arnasketa-fisioterapiako eta zaintza intentsiboetako kolektibo aditu bat edukitzearen garrantzia". "Espezializaziorako" behar hori beste jarduketa-esparru batzuetara ere eramane daiteke, adituen arretaren mende egoteagatik nabarmendu direnak (joraketa orokorretatik urrun), besteak beste hartutako kalte zerebrala, arreta goiztiarra, desgaitasunaren arreta eskoletan edo gaixotasun neuromuskularrak. Horiek zuzentzeko neurriak laguntza-sarearen hedapen koherentea, egungoaren efizientziaren igoera eta etengabeko prestakuntza espezializatuaren sustapena ekarriko litzateke.

Bestalde, uste dugu "osasuneko kostu-eraginkortasun analisek emaitza eztaba daezinak ematen dituztela, eta emaitza horiek gonbidatzen gaituzte arreta goiztiarreko taldeetako gure parte-hartze anekdotikoa identifikatzera osasun-kudeaketako politika oker gisa". Gure laguntza-potentzialarekiko interes- eta ezagutza-faltak, gure prestazioari lehentasuna emanez arreta espezializatuaren eremuan eta "gure potentzialari eta jarduteko gaitasunari muzin eginez osasunaren sustapenean eta hezkuntzan eta gaixotasunaren prebentzioan, ez dute soilik gure eskumenen esparrua murrizten, baizik eta adibide onak dira aurrekontuaren orientazioa okerra azaltzeko". Beste behin errepikatzen dugu gure eskakizuna: "fisioterapeuten kolektiboa eta euren zerbitzuak erabat integratzea arreta goiztiarreko taldeetan, gaur inoiz baino gehiago, beharrezkoa da patologia kronikoen eta euren ondorio sozioekonomikoen igoera artatu eta mozteko".

- Salatu genuen "fisioterapeuten kolektiboaren protagonismoaren, gaitasunen eta **Euskadin osasun-plan globalak sortu eta garatzeko lanaren gabezia**". Egoera hau ez dator bat herrialde garatuekin eta diziplinaren benetako gaitasun profesional eta akademikoekin, eta, gure



ustez, programa mota horien azken xedea lortzea oztopatu eta baldintzatzen du: osasuna sustatu eta zaintzea arreta integral eta egokiaren terminoetan. “Zuzendariordetza propio baten faltak edo erabaki-organoetan fisioterapeutak ez egoteak zalantzarik gabe arriskuan jartzen dute gure kudeatzeko gaitasuna, eta rol marjinalak ematen dizkigute osasunaren arloko lurralde-politikak diseinatu eta garatzeko orduan”.

- Eskatu genuen “berehala aztertzeo **Euskadiko osasun-sare publikoan fisioterapeuten kolektiboaren funtzioan eguneratzeko** aukera, fisioterapia-lanbidean jarduteko unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeo baldintzak ezartzen dituen uztailaren 3ko CIN/2135/2008 Aginduan ezarritako eskumenetara egokituz”. Horri dagokionez, gure analisia argia da: kolektibo profesional baliotsu bat unibertsitate-titulu batean sartzea, “fisioterapia-laguntzaileen” figura iraungiaren antzeko lan eta eskumenak garatuz, baliabide publikoak xahutzeo modu onartezina da. Kausa agerikoa da: “Gizarte Segurantzako osasun-laguntzaile tituludunen eta klinikako laguntzaileen estatutua onartzen duen Lan Ministerioaren 1973ko apirilaren 26ko Aginduaren 70. artikulua ordeztuko duen araudi berririk ez garatzea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen seigarren xedapen iragankorraren 1.b) atalean adierazten zen moduan”.

Horri dagokionez, nahiz eta 1981. urteaz geroztik diziplina hori unibertsitate-titulu bihurtu zen eta esparru pribatuan diziplinak garapen profesional inbidiagarri eta aitortu izan

duen, honako hau adierazi genuen: “arau-garapen egoki bat ez izateak, modu absurdo eta ulertezinean, kolektibo eta diziplina profesional oso baten funtzioak, eskumenak eta funtzionamendu-dinamikak bultzatu eta baldintzatzen ditu esparru publikoan, eta ondorioz hierarkia medikoaren printzipio anakronikoan oinarritutako laguntza-eredu zaharkitu bat ezartzen du, gainerako osasun-profesionalak horren mende gelditzen direlarik eta autonomia profesionalerako espaziorik existitzen ez delarik, nahiz eta profesionalen gaitasunak behar bezala egiaztatuta eta frogatuta egon”.

Gure argudioen arabera, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearekin agerian gelditu zen araudia egokitzearen beharra, eta, 1973. urteko Agindua partzialki indargabetzeaz gain, seigarren xedapen iragankorrean eskatu zen funtzioak titulazio berrietara egokitzeo arau berri bat emateko. Lege hori aplikatu ondoren, fisioterapia, beste diziplina batzuekin batera, gradu-titulazio bihurtu zen, eta master eta doktoretzatan ere sartu zen. Hala ere, gaur egun, hori eskatu eta 17 urte geroago eta titulazio berriak sortu eta 12 urte beranduago, oraindik ere ez dute araua egokitu. Hori dela eta, Euskadiko osasun-zerbitzu publikoetan, nahiz eta fisioterapiako profesional guztiak unibertsitateko diplomatu edo graduatuak diren, eta nahiz eta kasu askotan master ofizialen eta doktoretzen titulazioak egiaztatzen diren, funtzioek “laguntzaileenak” izaten jarraitzen dute, eta dagoeneko berrogeita zazpi urte bete dituen arau baten mende daude.

“Ulertuta araudi berria estatu-esparruan garatu behar dela, gonbidatzen dizuegu kontuan hartzera hori Osasuneko Lurralde arteko Kontseiluari helaraztearen ezinbesteko garrantzia. Beraz, osasun-zerbitzu publikoetan fisioterapeuten funtzioak egokitzeak, unibertsitate-titulazioaren eskumenetan oinarrituta, aukera emango du baliabide publikoak askoz modu efizienteagoan

kudeatzeko, eta autonomia profesional handiagoa emango dio kolektiboari. Horrez gain, beharrezko erantzukizunak bere gain hartu ahalko ditu, horretarako gaikuntza baitu”.

- “**Zuzeneko deribazioaren**” dinamikak aztertzeo gonbita egin genuen, “diziplina arteko funtzionamendu-eredu eraginkor eta efiziente gisa”. Fisioterapia-zerbitzuak edozein espezializazio medikotik deribatzeo eredua hori “onetsitako arauetan eta behar bezala frogatutako kostu- eta eraginkortasun-kudeaketaren dinamiketan oinarritzen da”.

“Jakin dugunez, beste eskualde batzuetan antzeko kudeaketa-estrategiak ari dira garatzen (Gaztela eta Leon, Kanariak...), eta emaitza asebetegarriak lortu dituzte jasangarritasunari, arreta-denboren eta itxarote-zerrenden murrizketari, lotutako kostuen aurrezpenari eta erabiltzaileen asebetetze-mailaren igoerari dagokionez. Har ditzagun esperientzia horiek eredutzat”.

- Erkidego-mailako **legegintza garatu eta aberasteko** eskatu genuen, fisioterapiaren kolektiboaren parte diren eskumen-esparruak eta garapen profesionala babesteko. Araudi irmo eta argi baten faltak arriskuan jartzen ditu esparru eta garapen profesionalen babesari begira dituzten oinarritzko eskubideak, segurtasun- eta berme-terminoetan.

Osasunaren arloko intrusismo profesionalaren jazarpen eraginkorraz ari gara (kolektiboarentzat arazo historikoa izan da eguneroko jardura profesionalen) eta lotura zuzena dute pazienteen segurtasun-estrategia izenekoaren testuinguruarekin:

profesional fisioterapeutaren autonomiaren garapenaz ari gara (funtzionamendu-eredu zaharkituak alde batera utzita, zeinak asimetrikoak diren eremu publikoan eta pribatuan); zuzendaritza propioak garatzeaz ari gara Euskal Osasun Zerbitzuaren funtzionamendu-esparruan; kolektiboa autoritate gisa ikusteaz ondore penaletarako (babes gehigarria eskainiz pazienteen edo erabiltzaileen eraso fisiko eta ahozkoen aurrean, salatzen ez direnak); gaikuntza akademikoa duen kolektiboak sendagaiak agintzea ahalbidetuko duen araudia garatzeaz; funtzionarioen sailkapenetan fisioterapeutak A.1 azpitaldeko kide gisa hartzeaz, unibertsitate gradua izatea kontuan hartuta...

- Horrez gain, azpimarratu genuen “**Kontsumoaren** arloko administrazio-organismoen parte-hartzea, Euskadiko herritarrei beharrezko informazioa helarazteko eta informazio hori babesteko, honako gai hauen inguruan: osasun-zerbitzuen “kontsumoa”, eskaintza nahasgarriak, iruzurrezko eskaintzak, sasi-terapiak eta osasuna arriskuan jar dezaketen jardura profesionalak”.

Alde horretatik, funtsezkotzat jotzen dugu osasun-produktuen publizitatearen arauketari buruzko Lege berriaren garapen eta onespenean aurrera egitea. Izan ere, Legearen hasierako zirriborroak denbora luzera darama zain, eta kontsumitzaileen segurtasuna behar bezala bermatzera bideratutako aldaketak egin beharko lirateke.

- “Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen eta Estatuaren arteko **zerga-homogeneizazioa** aldarrikatu genuen, bai kenkariekin

eta bai bere kabuz lan egiten duten profesionalen PFEZarekin”.

- Erakargarritzat jo genuen “**erakundeen arteko komunikazio-estrategiak** sustatu eta garatzea, unibertsitateen (publiko nahiz pribatuak) eta elkargo profesionalen artean, kolektiboaren garapen profesional indartzeko helburuarekin”.
- “Zuzkidura ekonomikoak handitzearen desira partekatua ere adierazi genuen, **fisioterapia-ikerketaren** arloan, fisioterapiako doktoreei lotutako zifra egokira iristeko gizarte aurreratuenen estandarrekin bat etorritz”.
- Eskatu genuen “fisioterapiak eta fisioterapeutek **kanpaina eta arauetan** parte har dezatela, bereziki kanpaina horiek **jarduera fisiko osasuntsua** sustatzen badute, baita osasunerako kirola eta kirol-errezetak ere. Erreferentziazko osasun-profesional moduan, fisioterapeutek beharrezko prestakuntza eta eskarmetua dituzte jardura fisikoarekin eta terapeutikoarekin nahiz osasun-prebentzioarekin lotutako gaiak lantzeko”. Diziplina ez da sartu aurrera eraman diren udal-proiektuetan, eta hori, “**merkezgabeez izateaz gain, gaizki orientatutako politika soziosanitarioaren adibidea da, interesaren araberrako kudeaketa-eredu partzialekin**”, eta eskumenen inbasioa edo intrusismo gisa identifikatu daiteke hori, osasun-arazoak jorrazteko jardura fisikoaren programen diseinuan, plangintzan eta exekuzioan. Arazo horiek familiako medikuen kudeatzen dituzte, eta osasun-arlokoak ez diren profesionalen esku jartzen dituzte.
- Eskatu genuen “**Fisioterapiako sektore-mahai** bat sortzeko, lehiaren eraginkortasuna,

efizientzia eta errealitatea zaintzeko aseguru-etxeetan eta mutuetan, tarifak finkatzeari dagokionez, kartelen osaera edo erabiltzaileekin lotutako botere-gehiegikeriak hautemateko”. Gainbegiraketa horrek barne hartuko lituzke kanpoko kudeaketaz arduratzen diren bitarteko enpresak (herritarrekin eta fisioterapeuten kolektiboarekin lotutako erabakiak modu ekonomizistan ezarri diren egiaztatzeo ikuskaritza-kanpainak.

“Gure erakundeak Euskadiko gizartearen esker ona jasotzen du maiz, askotan adierazi baitizkigute esker ona eta gure lanaren aintzatespena, bai fisioterapeutoi, bai gure eguneroko jarduerari. Uste dugu legebiltzarreko ordezkariak bat etorri beharko lukeela erantzun horrekin, betiere arduraz jokaturik. Aintzatespen profesional honetan aurrera egitera gonbidatzen zaituztet, erakunde lagunkoia topatuko baituzue inongo zalantzarik gabe”.

“Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialari gustatuko litzaioke etorkizuneko osasun-politiketan parte hartzea, eta prest dago hori praktikara eramateko, beharrezkoak diren bilera guztiak eginda eta gure parte-hartzea komenigarritzat jotzen duten lantaldeetan sartuta”.

Gure aldetik eskerrak eman nahi dizkiogu Elkarrekin Podemos-EA legebiltzarreko taldeari, entzuteagatik eta arretagatik, baita eskerrak eman dituzten eta partekatutako dokumentua aztertzeo konpromisoa adierazi duten gainerako taldeei ere.

Gobernu Batzordea



Euskal Autonomia erkidegoan Kirol-Arloko Lanbideetan Sartzeari eta jarduteari buruzko Lege Proiektua

EFEO-ko kolektiboaren ordezkarien agerraldi berria Eusko Legebiltzarreko Kultura-, Euskara- eta Kirol-Batzordearen aurrean

Epe batez geldirik egon ondoren, joan den otsailaren 9an Eusko Jaurlaritzak berriro aztertu zuen EA-NV eta SV-ES taldeek formulatutako Lege Proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzkoa.

Aztertzearen aldeko irizpidearen arabera, aurkeztutako ekimen berriak aurreko legegintzaldian izapidetu zen baina onetsi ez zen ekimen baten testua jasotzen du; beraz, garai hartan egindako legebiltzarreko prestaketa- eta izapidetze-lanaren balioa azpimarratzen da, talde politikoen zuzenketen arauketak eta gehikuntzak zuzenean eragindako hainbat eragileren parte-hartzearekin eta ekarpenekin.

Eragindako eragile horien artean gure parte-hartzea sartzen da EFEOko ordezkari gisa, eta guk dagoeneko zuekin guztiokin partekatu genituen egindako ekarpenak; horiek funtsean gure eskumen-esparruaren babesean oinarritzen ziren, lehen proposamen horren analisiaren eta azterketaren ondoren identifikatu baitzen interpretazio-akatsak egon zitezkeela.

"Eusko Legebiltzarra osatzen duten pertsonen gogorazi nahi diegu osasun-xederako jardura eta ariketa fisikoaren arloko lanbidea, ezagutza eta eskumenekin, dagoeneko existitzen dela eta araututa dagoela. Lanbide hori Euskadiko fisioterapeutek egunero garatzen dutena da, Osasunaren Mundu Erakundearen preskripzioen babespean", adierazi zuen 2016ko maiatzean Jon Herrero gure lankideak.

Roberto Romerok, bestetik, lehen agerraldi horretan "Kirola eta Osasuna" binomioa "Kirola eta osasun-arazoak" binomioarekin lotu eta alderatzearen arriskuen inguruan ohartarazi zuen. "Lehenak lotura du kirol-jarduerarekin, eta eztaba daezinak dira kirolak hura praktikatzeko duen pertsonaren egoera fisiko, psikiko eta sozialean dituen onurak". "Hala ere, beharrezkoa da kirola, elementu osasuntsu gisa, eta hura osasun-arazoak jorratzeko tresna gisa sustatu eta praktikatzeko bereiztea, osasunarekin loturarik ez duten esparruetan, Euskadiko fisioterapeuten kolektiboak azken urteetan ikusi eta salatu duen moduan".

Horrez gain, Severino Setien gure aholkulari juridikoak aurkeztu zituen argudio juridikoei dosierak, publizitate-triptikoak, prestakuntza-eskaintzak, ebazpen juridikoak eta hainbat dokumentu batu zitzaizkien, adierazitako kezka eta salaketei modu objektiboan eusten zietenak, eskumen-erasoaren terminoetan, kirol-arloarekin lotutako profesionalen eskutik, osasun-arloko esku-hartze eta prozedura propio eta eskusiboei begira. "Azken urteetan, eskumenen mutazioa ikusi dugu Gorputz Hezkuntzako graduatuen kolektiboaren sektore batean, eta kezagarria da osasunarekin lotutako eskumen-esparruetan sartzeko erakutsi duten interesa, geroz eta handiagoa".

Lehen agerraldi horren amaieran mezu bat bidali zen: "...gustatuko litzaiguke partekatutako argudioek hausnarketara eta irizpide-aldaletara eramatea legebiltzarreko talde batzuk, idatzitakoa partzialki aldatzeko..."

2021eko apirilaren 26a. Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen Mahaiaren aurrean. Eusko Legebiltzarra.

"Atsegin handia da guretzat gaur zuen aurrean egotea. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu batzorde honi lege-proposamen honetan parte hartzeko aukera emateagatik, eta, bereziki, Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza eta Alderdi Popularra taldeei gure agerraldi-eskaera baieستegatik.

Hau gure hirugarren agerraldia izango da legebiltzarreko batzorde honen aurrean, araudi-proiektu honekin lotuta".

Joan den apirilaren 26an hasiera eman genion esku-hartze formal sorta berri bati, Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza eta Alderdi Popularra-Ciudadanos taldeek gure agerraldi-eskaera baietsi zutenean, aberasteko eta elementu berriak emateko Euskadiko kirolaren eta jardura fisikoaren lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko indarreko Lege Proposamenaren inguruan.



Arrazoizkoa iruditzen zaigu pentsatzea lehen agerraldi horietako edukiaren eta elkarrizketa partikularretan legebiltzarreko taldeekin partekatutako defentsa eta argudiatzearen ondorioz Lege Proposamen berriaren testuak, gure ikuspuntuaren arabera, modu errespetutsu, fidel eta arduratsuan jasotzen duela gure kezken ardatza.

Rakel Molina andrearen (EA-NV taldea), José Antonio Pastor jaunaren (SV-ES taldea), Rebeka Ubera andrearen (EH Bildu taldea), Gustavo Angulo jaunaren (EP-IU taldea) eta Carmelo Barrio jaunaren (VP-C taldea) aurrean aukera izan genuen gure ikuspuntu berria partekatzeko eta “eskerrak emateko eta aitortzeko gure argudio eta iritziak modu erabat egokian artatu eta jaso dituztela”.

Alde horretatik, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek formulatutako idazketa-proposamen berriaren noranzkoaren aldaketa baloratu eta aintzatetsi genuen.

4.7 artikulua kezkarria, gure iritziz, espazio eta interpretazio laxoak jartzen ziren agerian, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatuen kolektiboak ez dituen osasun-eskumenen gaikuntza desegokiarekin nahasi zitezkeen, esaldi desegoki honen ondorioz: “osasun-arazoak eta antzekoak dituzten pertsonak”. Testu berrian, **6.7 artikulua** baliokidean jasotzen da hori, eta ez da mota horretako aipamenik egiten. Gainera, kirol-kolektiboek osasunaren eskumen propioak ez egoztea errespetatzeko betebeharra azpimarratzen da.

“Terminologia horrek ateak ireki zizkion kirolaren praktika “osasuntzeari” (barkatu neologismoa), eta distantziakidetasun arriskutsua ezarri zuen hiru elementuen artean: Kirola, Osasuna eta Osasun Arazoak.”

Roberto Romero



Iturria: Euzko Legebiltzarra - Parlamento Vasco

“Funtsean, ez dira nahasi behar osasun-eragile bat eta osasun-profesional bat ariketa fisiko terapeutikoan oinarrituta; inguruabar ezberdinak dira. Lege berri honi esker, banaketa argia izango da, eta eragile horien arteko lankidetzaz adimentsua ahalbidetuko du.”

Seve Setien

Horrez gain, gure adostasun osoarekin, testu berriak artikulua berri bat jasotzen du, 11.j artikulua, zeinak osasunaren arlokoak ez diren kolektiboan jarduketa-mugak zalantzarik gabe azpimarratu eta kokatzen dituen.

“11. art. Jardun profesionaleko betebeharrak. j) atala: lankidetzaz aktiboan aritzea kirolariari bere errendimendua edo osasuna hobetzen lagundu ahal dioten gainerako profesionalekin, desgaitasun edo disfuntzio somatikoak dituzten pertsonen suspertze- edo errehabilitazio-zerbitzuak eman gabe fisioterapeuten atribuzio profesionalen bitarteko edo eragile fisiko propioen bitartez”.

Gure ustez, testuak, adierazitako terminoetan, araudi-proiektu honetan erabat beharrezkoak diren elementuak jorratzen ditu, “lege berriaren xede nagusiari eta helburuari erreparatzen badiegu, hau da, kirolaren eta jarduera fisikoaren arloko kolektibo eta diziplinak arautzea eta horien zerbitzuen erabiltzaileentzako segurtasun eta bermeen esparru bat ezartzea”.

